



**2022-23KO
BAKEAREN
ALDEKO
IKASTETXEEN
TXOSTENA**



**Save the
Children**

2022-23 ikasturte honetan aurkezten dizugun txostenaren helburua gatazka armatu baten erdian bizi diren haurren zailtasunak testuinguruan jartzea da.

Webgunean gelan egiteko proposamen didaktikoak aurkituko dituzue, hezkuntza-mailen arabera eta hainbat hizkuntzatan.

Gatazka armatuaren errealitatea gerturatu nahi diegu zuen ikasleei, baina aldi berea, sentsibilizatu eta milaka ikaslek bat egitea nahi dugu **BAKEARI BAI esateko mobiliza daitezten.**

Edizioa:

Nieves García, Marisol Paniagua
eta Sara Adrián

Artea eta maketazioa:

Germán Gullón (VALBHY)

ONGI ETORRI, BESTE IKASTURTE BATEZ!

Eskerrik asko guztien artean egia egiten bihurtzen dugun bakearen aldeko eskola-uholde honekin bat egiteagatik. Txosten honek, eta webgunean zuen eskura dituzuen jarduera eta ikus-entzunezko baliabideek, aukeratu duen jarduera solidarioari (Elkartasun-kilometroak, Orri-markatzaile solidarioak, Neska izateko eskubidearen aldeko lasterketa edo Christmas Jumper Day) partaidetza- eta mobilizazio-ikuspegi bat ematen lagunduko dizuete.

Asaldatutako garaian bizi gara, zalantzan betetako testuinguru batean, eta mila neska-mutil gatazka armatu bat dagoen guneeetan bizi dira. Orrialde hauetan errealitate horren ikuspegi orokor bat aurkituko duzue, haur zaugarri horien babesgabetasunari buruzko datu esanguratsuekin. Nola eragiten die osasunari edo hezkuntzari, eta nola larriagotzen da nesken kasuan? Zein eragin du gerrak haurrengan, eta ondorio zuzenen uhin hedakorrek nola gainditzen ditu mugak?

Save the Children I Mundu Gerran jaio zen, eta gure paperak, zuen laguntzarekin, are garrantzia handiagoa du egun. Horregatik, ezagunagoa egingo zaizue lekuan bertan egiten ditugun ekintzen eta programen bidez hezkuntzan, nutrizioan eta babesten egiten dugun papera.

Egingo duzuen ekintza solidarioa oso garrantzitsua da. Ekintzaren arretan zuen ikasleengan jarriko da, mobilizatzen direnean, protagonista bihurtuko baitira zaugarrienei ahotsa emango baidiete. Ez zaigu bururatzen elkarrizketa, enpatia eta bakea erabiliz bakea eraikitzen duen munduko herritar izateko trebatzeko modu hoberik.





**BAKEAREN
ALDEKO ESKOLA-
MUGIMENDU BAT
BEHAR DUGU**

MUTILEK INOIZ BIZI IZAN BEHARKO EZ LITUZKETEN EGOERAK BIZITZEN DITUZTE

Adin txikiko askok bonbardaketak, ihes egiteko beharra eta bizitza normal bat ezin eramatea besterik ez dute ezagutzen. Neska-mutil horien etxeak, eskolak eta jolastokiak guda-zelai bihurtu dira duela hainbat urtetatik hona. 2022ko otsailean Ukrainako gerra piztu zen, eta martxoan **Yemengo gerrak 7 urte bete zituen eta Siriako gerrak, 11**. Zoritxarrez, komunikabideetan ateratzen ez dena ahaztu egiten da, eta horregatik **emango dizkizuegu jakin beharreko datu harrigarri batzuk**:

Ukrainako datuak beldurgarriak dira. Herrialdeko umeen **bi herenek** etxetik ihes egin dute, eta **6,6 milioi pertsona baino gehiago** herrialdetik joan dira. Milaka haur lurpean harrapatuta daude, metro-geltokietan, eskolako sotoetan eta bunkerretan, indarkeriak jarraitzen duen bitartean. Ukrainako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren arabera, Save the Children-ek ohartarazten du gutxienez 2.400 ikastetxeri eraso dietela otsailaren 24an gatazka indartu zenetik. 180 bat eskola guztiz suntsitu dira, eta 2022. urtearen hasieran Ukrainan bizi ziren 7,5 milioi haurren hezkuntza eten egin da. Herrialdeko eskolen erdiak soilik irekiko dira ikasturte honetan, ikasleak aurrez aurre eskolara joateko.

Siriako haurrek baldintza negargarrietan jarraitzen dute osasunerako kaltegarriak eta segurtasunik ez dagoen kanpalekuetan. **Bonbardaketak eta aire-erasoak jasateko arriskuan**, gosea, gaixotasunak eta desnutrizioa dituzte. Iparraldeko gatazkak biktima zibilak eragiten ditu, eta familiek **beren etxeak uztera** behartzen ditu. 2021ean, herrialdearen ipar-mendebaldean **eskolen aurkako 15 eraso** dokumentatu genituen, eta urrian **hiru haur eta irakasle bat hil zituzten** eraso batean, eskolara bidean. Sirian **6,5 milioi haurrek giza laguntza behar dute**; 2,5 milioi neska-mutil ez dira eskola joaten, eta 800.000 bat adin txikiko desnutrizioa dute.

Datu bakoitzaren atzean gerrako biktima errugabe baten bizitza dago.





**NESKA BATEN
ETA MUTIL
BATEN BIZITZAK
GERRAN DAGOEN
HERRIALDE
BATEAN**

NESKA-MUTILAK DIRA GERRAREN ONDORIOAK GEHIEN JASATEN DITUZTENAK

Save the Children-en gerraren ondorioak zuzean jasan dituzten haurren ehunka kasuren frogak ditugu: mutilei eta neskei eraso egin diete futboleko jolasten ari ziren bitartean, eskolako mahaietan eserita zeudela, ospitaleko ohean etzanda zeudela, norbere etxean zegoela eta merkatuan. **Milaka eta milaka haur hiltzen dituzte, mutilatuta eta traumatizatuta geratzen dira, beste norabait joan behar izaten dute,** eta gehienak beldurrez eta etengabeko antsietatearekin bizi dira.

Eskolako patioak frankotiratzaileen su-lerroan eta jolastokiak hilerri bihurtzen diren tokian, **haurrak pixkanaka espazio publikotik erretiratu egiten dira,** aire librean jolasteari uzten diote edota ikaskideekin harremana izateari uzten diote. Egoera horrek **bakoitzaren pertsonalitatea garatzeko** gaitasuna ahultzen du, eta estresari aurre egiteko mekanismo nagusia kentzen zaie.

Horren adibidez Ukraina da, etengabeko aire-erasoek eta leherketek eskolak eta ospitaleak kaltetu dituzte, zibilak hil ditzuzte eta haurrek arreta mediko eta hezkuntza seguru bat eskuratzeko zailtasunak dituzte.

Indarkeriak jarraitzen duen heinean, adin txikikoek helduaroan ondorio suntsitzaileak jasan ditzateke galeraren eta desplazamenduaren traumarengatik.




Segundo bakoitzean, haur bat errefuxiatu bihurtzen da.

Errealitate hori ezagutzeko modu hobereana bizitza-istorioen bidez da.

Layla, Yousef edo Samir Siriako haur errefuxiatuak dira, eta bakoitzak bere bizitzako egun bat grabatu du:





**ZEIN ERAGIN
DAUKA GERRAK
HAURRENGAN?**

OSASUNA ETA ELIKADURA

Ur edangarria lortzea hil ala biziko kontua bihurtzen da gatazkako eremu batean. Borrokek saneamendu-azpiegiturak suntsitzen dituzte, eta hurrek ez dute ur edangarririk higiegi egoki bat izateko. Gainera, beherakoa eta gisako gaixotasuna errazago harrapatzen dituzte, eta bost urtetik beherako heriotzen arrazoi nagusia da.

Elikagai nutritiboei dagokienez, gerra-eremu batean bizitzean helduek lana galtzen dute eta ez daukate dirurik janari erosteko, edo janariaren prezioa hainbeste igotzen denez familiek ezin dituzte ordaindu. Ekoizpena ere arriskuan jartzen da, eta beharrezko elikagaiak inportatzea edo esportatzea ezinezko bihurtzen da. Bizitzako lehen hiru urteetan elikadura egoki bat egiten ez bada, haurren garapenak konpondu ezinezko ondorioak izango ditu.

Ezinbestekoa da eremu horietan ospitaleek eta osasun-etxeek lanean jarraitzea, baina ez da posible izaten beti. Baliabide guztiak borrokan zauritu direnentzat bideratzen direnean, gainerakoa atzeratu egiten da. Haurren txertaketa-programak etenez gero, osasun-arreta egoki batekin prebeni daitezkeen arazoak ager daitezke.

Milioika neska-mutilen buru-osasuna arriskuan dago etengabeko estres-egoeran daudelako. Milaka haur gerran dagoen herrialde batean jaio dira eta ez dute besterik ezagutzen; eta bestetik batzuei egun batetik bestera aldatu zaie bizitzea. Hainbeste esperientzia traumatiko bizitzeak (etxetik ihes egin beharra, ezkutatuta bizitzea edo babes gabeko egoerak jasatea) inflexio-puntu bat izan ohi da, eta berehalako arreta psikologia eskatzen du. Antsietatea, beldurrak, loa asaldatzea edota suizidioa gatazka-eremuan dauden hurrek aurre egin beharreko arazoak dira.

10 haurretatik 8k
larritasun emozionala
sentitzen dute



10 zaintzailetatik 9,6
zoritarreko sentitzen dira
eta antsietate handia dute



10 haurretatik
9 ez dira seguru
sentitzen bakarrik

HEZKUNTZA

Haur batentzat eskola lekurik seguruenetako bat bada ere, ia 50 milioi haur ez dira joaten, gerran gune horiek suntsitzeko helburu bihurtzen direlako. **Kalitatezko hezkuntza baten aukerak gutxitu egiten dira gatazka-eremu batean, eta are gehiago nesken kasuan, eskolara joateari uzten dioten lehenak izaten direlako.** Egoera denboran luzatzen bada, gazteen “galdutako” belaunaldiez hitz egiten dugu, hezkuntzan atzera geratzen direlako, eta etorkizunean ezin izango dutelako kualifikatutako lanposturik lortu.

Hezkuntzarekin jarraitzea, batez ere urrun dauden tokietan, ia ezinezkoa da ahuldutako gobernu batentzat. Batzuetan zailtasunak muturrekoak dira erasoak hezkuntzaren aurkako estrategia zuzen baten zati direlako: eskolak okupatzea edo suntsitzea eta irakasleei eta ikasleei mehatxu edo eraso egitea.

Ayak 7 urte ditu. Artean txikia zen Siriako gatazka piztu zenean, eta ezin izan da inoiz eskolara joan. Bihar bere lehen eguna da eta poz-pozik dago.



BABESA

Urtero mundu osoko milioika neska-mutil hainbat modu dituen isildutako indarkeria baten biktima bihurtzen dira. Gatazka armatuko eremuetan, haurrentzako arriskuak sexu-indarkeria, pertsonen trafikoa edo talde armatuetarako errekrutatzea izan ohi dira.

8 urte besterik ez dituzten mutil asko bahitu eta talde armatuetan sartzea behartzen dituzte, nahiz eta badiren boluntarioko bat egiten dutenak ere, arroparen, diruaren edo babesaren truke. Beste batzuk lagunen edo familiako kideen presioz sartzen dira, etxeakoak babesteko, edo gurasoen eta anaia-arreben heriotzaren mendekua hartzeko. Hainbeste muturreko indarkeriak beldurra, antsietatea, depresioa eta segurtasun eza eragiten ditu mutilengan, eta laguntza psikologiko espezializatua beharko dute traumak gaingitzeko.

Nesken kasuan, sexu-indarkeria edo behartutako ezkontza arrisku larria dira nesken osasun fisiko eta psikologikorako. Ezinbestekoa da egoera horiek prebenitzea gune seguruak bermatuta eta gobernuekin lan egitea babes-mekanismoak ezartzeko.

ETA GAINERA...

Krisi klimatikoak munduko krisi ekonomikoa bizkortu du, eta ondorioz, larriagotu egin da gerraren biktima diren haurren egoera, eta gatazka egon daitekeen eremuez harago bizi diren neska-mutilei ere egiten die orain. «*Jada atzean geratzen ari direnak, are atzerago geratuko dira. Klima-aldaketa desplazamenduak eragiten ari da mundu osoan*», NBEko idazkari orokorraren ustean. Euria urri egiteak eta etengabeko lehorteez elikagaien segurtasun eza areagotzen du eta baliabideengatik kompetentzia. Siria iparraldean komunitateek geroz eta ur-krisi handiagoa bizi dute lehortearengatik, eta Sahel eta Afrikako Adarraren inguruan, azken 40 urte hauetako lehorterik okerra bizitzen ari dira. **Ondorioak beldurgarriak dira, batez ere emakumeentzat eta neskeentzat**, urrunago joan behar izaten dutelako ur bila eta, beraz, sexu-indarkeria jasateko arrisku handiagoa dutelako.

Mundu-mailako krisi ekonomiko baten erdian gaude, eta familiek geroz eta finantza-zailtasun handiagoa dituzten Covid-19aren pandemiaren ostean, diruaren balioa gutxitzen ari da eta oinarrizko produktuen eskasia dago.

Gerran dauden herrialdeetan, koronabirusak krisi humanitario bikoitza eragin du, pertsonen bizitzari are erronka handiagoak gehituz, bizirauteko muturreko neurriak hartzera behartuz. 2020 eta 2021ean nazioarteko migrazioen kopurua jaitsi egin zen, baina gerrek joera hori leheneratu egin dute egun. Munduko Bankuaren arabera, nazioarteko migratzaileen eta errefuxiatuen kopurua 286 milioi izatera irits daiteke 2022an.

GERRAK MUGAK HAUSTEN DITU

Ukraniako gatazkak eta hark Europan eragin duen errefuxiatu-krisiak herrialde askoren testuingurua larriagotu du. **Erregaien eta oinarrizko elikagaien sekulako prezio-igoerari, eta hornikuntzen etenari, herrialde asko, hein handi batean, Errusiako eta Ukrainako inportazioen mendekoak direla gehitu behar zaio**. Errenta baxuko edo baxu-ertaineko 14 herrialdek, jada gose eta zor handia dutenak, gariaren % 50 Ukrainatik inportatzen dute (Eritreak % 100, Somaliak % 92 eta Yemenek ia erdia). Gainera, Sahel, Siria edo Yemeneko larrialdietara bideratzen ziren funts humanitarioen zati bat (lehendik ere finantzazio eskasa zuten, gainera) Europara desbideratzen ari dira.

Laguntza iristeko denbora gehiago pasatzen bada edo laguntza hori iristen ez bada, munduan desnutrituta dauden pertsonen kopuruak bizkor egingo du gora, eta milioika haurrentzako desnutrizio akutu larriaren aurkako tratamendua faltako da. Pertsona horien bizitza arriskuan dago.



**SAVE THE
CHILDREN-EN
ERANTZUNA**

1919TIK HAURREI LAGUNTZEN

Save the Children 1919an sortu zen I Mundu Gerraren biktima ziren haurrei laguntzeko. Egun, 100 urte eta piko geroago, erakundeak lanean jarraitzen du gatazkek haurren osasunean, elikaduran, hezkuntzan eta babesan dituzten ondorioak arintzeko.

Osasuna eta elikadura

Haurrentzako elikadura-programak dauzkagu errefuxiatuen eremuetan, eta elikagaien entrega babesten ditugu gatazka-eremuetan. **Txertaketa-kanpainak egiten ditugu** hepatitis, polio eta erraz prebeni daitezkeen beste gaixotasun batzuen aurka.

Alabaina, une honetan gosetearen eta heriotzen ondorioak ez dira gatazka-eremuetara soilik mugatzen. Ukrainako gerraren ondorioz azken urteetako krisi humanitario handiena eragiten ari da Sahelen eta Afrikako Adarrean, eta gure taldeak elikadura-programekin eta bizimodu desberdinekin lanean ari dira milaka haur gosez eta desnutrizioak jota hil ez daitezzen.




Hezkuntza

Gure baliabideen zati handi bat haurrak lehenbailehen eskolara itzultzeko bideratzeko ditugu, nahiz eta itzulera hori beti ez den erraza izaten. **Uste dugu hezkuntza ikasteko tresna bat izateaz gain, bakea eraikitzen ere lagun dezakeela.** Gobernuetan eta nazioarteko komunitatean eragina izateko lan egiten dugu, eta erakunde horiek hezkuntzari lehentasuna emateko eta eskolak babesteko konpromisoa har dezaten, toki seguru eta indarkeriarik gabeko toki bihurtzeko.



Babesa

Gure lanaren zati garrantzitsu bat haurrentzako gune seguruak eraikitzea da. Gune horietan, eta aisialdiko eta denbora libreko jardueren bidez, zein behar dituzten behatu eta hauteman dezakegu, eta beldurrik gabeko haur gisa dagokien bizitza egiten jarraitzen laguntzea.



Aterpea

Errefuxiatuen eremuetan bizi diren pertsonen temperatura-jaitsierei oso gauza gutxi erekin aurre egin behar izaten diete, eta horrek zaugarri egiten ditu. Neska-mutilek pasatzen dute okerren negu latzetan, eta orduan tapakiak eta arropa beroa banatzen ditugu. Baita janaria prestatzeko kitak edo higiene-kitak ere, eta noski, hotz egiten duenean aterpe gisa erabili dezaketen kanpin-dendak.



Eskudiruaren transferentziak

Programa hauekin eskudirua ematen zaie larrialdi batek eragin dien familiei. Horrela, haurren oinarrizko beharrei erantzuten zaie, baldintzak egokiak direnean eta merkatuek funtzionatzen dutenean. Tokiko ekonomiari ere mesede egiten zaio, eta familiak berak ahalduntzen dira, familiek berek erabakitzen dutelako zein diren beren betebeharrak. Familien duintasuna ez da arriskuan jartzen, bestela ere egoera oso zaila bizi baitute jada.

Bestalde, eskudiruaren transferentziek irauteko gaitasuna hobetzen dute etorkizuneko krisietan, zorrik egiten ez dutelako eta haur-ekontzak egitea edo eguneroko janari-anoak gutxitzea bezalako ekintzak egin behar ez dituztelako.




ZER DA GURE LARRIALDIETARAKO FUNTSA?

Larrialdi bat noiz gertatuko den jakin ez arren, badakigu zein garrantzitsua den larrialdi bat gertatzen denerako prest egotea. Ukrainako gerra da horren adibide garbi bat; egun gutxitan, bizitza lasaia zeramaten familia askok etxetik ihes egin eta muga igaro behar izan zuten bizirauteko. Egoera horri lehen unetik bertatik erantzun ahal izan bagenion, laguntzeko prest egoten utzi ziguten funtsak genituelako izan zen.

Larrialdi-funtsei esker, larrialdiak eragindako neska-mutilen babeseta eta segurtasuna berma dezakegu. **Familiak batzeko gure programei esker,** gune seguru batzuk ezartzen hasi ginen hurrek jolastu ahal izateko, eta lehen unetik arreta psikologikoa jaso ahal izan zuten. **Hurrek lehenbailehen oinarrizko eskubideak berreskura ditzaten saiatzen gara; hala nola, hezkuntza, osasun-arreta, ura eta higieena.** Finean, larrialdietarako funtsak bizitzak salbatzen uzten digu.

Helbide honetan dituzu gelan lantzeko jarduera didaktikoak eta gainerako ikus-entzunezko edukia:
savethechildren.es/recursosdidacticos-coles



AI BAKEARI OIHUKATZEN DUEN ESKOLA-UHOLDE BATEN ALDE

Save the Children-ek ezin ditu gerrak gelditu, baina gatazkak jasaten dituzten hurrei lagun diezaieke familiei diru-transferentziak eginda, eskolak gaituta eta haurrentzako gune seguruak sortuta.

Haurren eskubideen aldeko elkartasun-lasterketan urrats bat gehiago eman nahi duzu?

**Mobiliza zaitetz helbide honetan:
savethechildren.es/movilizacion-coles**



**MUGITZEN BAZARA,
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



Save the Children